



EOS

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

9

9

1. **Sarrera**

- 1.1. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Zuzeneko musika-jarduera
- 2.2. Pedagogia- eta zabalkunde-jarduera
- 2.3. Grabaketak

3. **Etorkizuneko erronkak**



1. **Sarrera**

1.1. **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS) 1982an sortu zen, Eusko Jaurlaritzak onartutako 62/1982 dekretuaren bidez, dekretu horren bosgarren artikuluan zehazten den bezala. Administrazio Kontseilua du gobernu-organo nagusia; Kultura Sailburuak, Kultura Sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Zuzendariak, hiru lurralde historikoetako kulturako diputatuak eta zenbait instituziotako ordezkariak osatzen dute. Beste alde batetik, bada Batzorde Artistiko bat, Orkestraren musika-ibilbidea definitzen eta garatzen laguntzen duena.

EOSen estatutuetan sorkuntzazko helburuok jasotzen dira:

- Euskadiko hezkuntzari eta kulturaren hedapenari laguntzea.
- Urteroko itzulien bitartez kanpora musika-balio berriak proiektatzea.
- Euskadiko musikari eta musikagileentzat pizgarri eta plataforma izatea.
- Gure musika-ekoizpenaren funts dokumental bat eratzea era guztietako grabazio eta inpresioen bitartez.
- Euskal musika-sorkuntzaren buruturiko grabazioen ezagupena hedatzea kanal egokietan barrena banatuz, nazioarteko merkatura.

EOSen 2008-2010 Plan Estrategikoaren garapenaren arabera ere arautzen da erakunde horren jarduera.



Dokumentu horretan agintzen zaion **eginkizuna** hau da:

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa musika-kultura sustatuz hasi eta joritu da.
- Herri osoak erraz entzuteko moduko musika sinfonikoa eskaintzen du Euskadi osoan.
- Kalitate artistikoari eta profesionalari dagokionez bikaintasuna lortzen ahalegintzen da, bakoitzaren helburu pertsonalak eta erakundearen helburu orokorrak adostuz.
- Hezkuntza-munduarentzat zuzendutako kontzertuak eta jarduerak bultzatzen ditu.
- Euskal musika-ondarea sustatzen du eta nazioartean zabaltzen.

Orkestraren **ikuspegia** hau da:

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren ikuspegia Euskadiren musika-erreferentzia nagusia izatea da, Euskadin bertan eta kanpoan, euskal musika-adierazpenei laguntzeko, elkarlanean jarduteko eta sustapena egiteko asmo finkoarekin.

Filosofia horrek zuzentzen du, argi eta garbi, EOSen jarduera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako estatu osoan musika-erreferentzia bilakatu baita bere musika-interpretazioaren kalitateagatik eta bere ibilbideak bete dituen hogeita hamar urteengatik. Bai aurrekontuaren pisuagatik bai bere berezitasunagatik, EOS proiektu estrategikoa da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren jarduera eremuan.

1.2. Jarduera-ildoen eskema

OESen jarduera hiru jarduera-ildotan dago antolatuta: zuzeneko musika-emanaldiak (OESen kontzertuak: ahalegin gehien eskatzen duen eta zentraltasun handiena duen jarduera-ildo da), pedagogia- eta zabalkunde-jarduera (bere ekimenei zentzu sozial handiagoa ematen diena) eta, azkenik, grabaketak (musika-ondarea sortzea eta haren zabalkundea egitea, bi helburuak dituen).

JARDUERA-ILDOAK
Zuzeneko musika-jarduera
Pedagogia- eta zabalkunde-jarduera
Grabaketak

1.3. Aurrekontua

EOSen ustiaketa-aurrekontua ia 10 milioi eurora iristen da; diru horren %80 baino gehiago Kultura Sailak jartzen du. Gastuari dagozkion kapituluetan, langileei dagokiena da nabarmenena, aurrekontuaren %70 ia. Kontuan hartu behar da, izan ere, orkestrak 108 pertsona dituela kontratatuta; horietatik 94 musikariak dira.

EOSen ustiaketa-aurrekontua, 2009 eta 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
GASTUAK	9.782.700	100,0	9.740.600	100,0
Langile-gastuak	6.604.395	67,5	7.006.228	71,9
Ustiaketa-gastuak	2.969.605	30,4	2.552.772	26,2
Amortizazioak	208.700	2,1	181.600	1,9
SARRERAK	9.782.700	100,0	9.740.600	100,0
Kultura Sailaren ekarpenak	7.893.000	80,7	7.908.500	81,2
Zerbitzu-emaizak	1.493.000	15,3	1.512.500	15,5
Bestelako diru-laguntza batzuk	78.000	0,8	78.000	0,8
Bestelako sarrera batzuk	110.000	1,1	60.000	0,6
Amortizatze sarrerak	104.600	1,1	115.900	1,2
Urtealdiko defizita	104.100	1,0	65.700	0,7

2. Jarduera-ildoak

2.1. Zuzeneko musika-jarduera

Testuingurua. Orkestraren eginkizun egituratzailea

EOS da Euskal Autonomia Erkidegoan musika sinfonikoaren erreferentzia, eta konpromiso bat du euskal kulturarekin betetzeko: euskal musikaren garapena ezagutaraztea eta bultzatzea, ondasun partekatu bat eta ondare komun bat izan dadin.

EOSek, horregatik, eginkizun egituratzaile bat du, argi eta garbi, euskal musika-sistemaren barruan. Eginkizun hori bere jarduera erregularrean zein proiektu berezien bidez betetzen du, eta sektore honetan diharduten beste eragile batzuekiko hitzarmen iraunkorren bitartez ere bideratzen da. Azkeneko urte hauetan sinatutako hitzarmen eta akordioen artean aipatzekoak dira Musikenerekin sinatua (hitzarmen honen bitartez Bakarlarrien eta Zuzendarien Laborategiak bultzatzen dira, ikasleen formazioa zabaltzeko), Miramongo Teknologia-gunearekin sinatua eta Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin sinatua.

Programak. Kontzertu jarduera handia

EOSek aldi berri bati ekin zion 2009/2010 denboraldian; Zuzendari Titular berri bat, Andrés Orozco Estrada, eta Zuzendari Gonbidatu Nagusi berri bat, Andrey Boreyko, estreinatu baitziren. 2009an eta 2010ean 242 kontzertu eman ditu EOSek; 284.000 pertsonatik gora izan dira kontzertu horietan, eta abonuko kontzertuetan lekuen %92 bete dira. EOSen kontzertu-jarduerari dagokionez, aipatzekoak dira:

- **Abonuko kontzertuak**, berak ekoitziak, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean izaten dira; denboraldi bakoitzeko 7.000 abonatu inguru izaten dituzte.
- **Musikaldietan parte hartzea**. 2009an eta 2010ean Donostiako Musika Hamabostaldian, Bilboko OLBEren opera-denboraldian, Errenteriako MUSIKASTEEn, Bilboko Arriaga Antzokiko Zartzuela jaialdian eta Arriaga Antzokiko Aretotxoetan hartu du parte.
- EOSen **itzuliak eta trukeak** euskal musika Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora ezagutarazteko aukera ematen duten jarduerak dira. 2009an itzuli bat egin zen Italian zehar, eta Cremona, Milan eta Monza hiriak bisitatu ziren, Milango Giuseppe Verdi Orkestrarekin egindako hitzarmen baten bidez. 2010eko irteeran Madrilen Luis de Pablo musikagileari egindako omenaldi batean parte hartzera mugatu ziren. 2010ean Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin trukeak egiteko hitzarmen bat ere izan zen.
- **Herrietako kontzertuek** EOS lurralde osoan ezagutarazteko balio dute. 2009an EOS Mutrikun egon zen eta 2010ean Getxon, Deban, Zarautzen eta Saran eman ziren kontzertuak.

- Urte hauetako garrantzi handiko gauza berri bat **Klasikat Zikloa** izan da; ekimen honen bitartez EOSen musika eskaintza beste entzuleria batzuetara ere zabaldu nahi da, horretarako orkestra sinfoniko baten emanaldietan oso ohikoak ez ziren eta musika klasikotik urruti dauden errepertorio batzuetan sartuz.
- **Miramongo Matinéeak** EOSek Kutxaren laguntzarekin bideratzen duen ekimen bat da; 1993an hasi zirenez geroztik, kamara-musikako erreferentzia bilakatu dira emanaldiok. Ziklo honek, kalitate oneko musika eskaintzeaz gainera, lan sinfonikoa ugaltzeko eta entzuleku berezi batean, EOSen egoitzan, fusio-proposamen berritzaileak eginez esperimentatzeko aukera eskaintzen zaie Orkestrako kideei.

Koadro honetan 2009ko eta 2010eko jarduerari eta entzuleriari buruzko datuak jasotzen dira, oso modu eskematikoan

	2009		2010	
	Kontzertuak	Entzuleak	Kontzertuak	Entzuleak
Abonuko kontzertuak	61	93.813	54	83.156
Jaialdiak	12	20.882	19	25.843
Udalak	2	810	4	2.700
Bereziak	11	9.251	13	17.606
Familiako kontzertuak	10	5.290	16	5.796
Miramongo Matinéeak	16	6.307	16	6.343
Itzuliak eta irteerak	5	3.341	3	3.375
GUZTIRA	117	139.694	125	144.829

2.2. **Pedagogia- eta zabalkunde-jarduera**

Testuingurua. **Kulturara iristeko bide bat**

Musika sinfonikoa herritar gehienentzat iristen zaila den kultura adierazpen bat dela esan izan da maiz. Topiko horren aurrean, EOSen ekimen hau bezalakoek garrantzi handia dute, era honetako adierazpenak zabaltzeko, era askotako entzuleengana iristen baita hala. Ildo honetatik, entzuleekiko hurbiltasun handiagoa lortzeko eta entzuleei era honetako musikarako sarbidea errazteko asmoa duten programa sail bat jarri du abian EOSek 2009an eta 2010ean.



Programak. **Hezkuntzari eta zabalkundeari garrantzi handiagoa eman**

Musika Gela 2009an sortutako marka berri bat; EOSek hezkuntzaren alorrean daraman jarduera-katalogo zabala biltzen da horretan. Azkeneko bi urte hauetan bultzada handia eman zaie EOSen hezkuntza-programei; programa horiek alor hauetan daude egituratuta:

- **Kontzertuak Familiar** zikloa, Donostian Kursaal Fundazioarekin eta Gasteizen Udalaren Antzoki Sarearekin elkarlanean egiten dena.
- **Eskolaumeentzako Kontzertuak**, Donostiako Udalarekin elkarlanean; Orkestraren egoitzan egiten da, eskolako ordutegiaren barruan. Hezkuntzako Sailak prestatu eta kontzertura datozen eskoletako musika-irakasleei aurkezten zaizkien gida didaktiko batzuetan oinarrituta aurretiazko lan bat egiteko aukera ematen duen egitura bat dute.
- **Egoitzara bisitak eta Tailerrak ikastetxeetan** dira Orkestrak ikastetxeetako ikasleentzat, irakasleentzat eta bestelako talde batzuentzat eskaintzen dituen beste ekimen batzuk.

Hezkuntzari eta formazioari dagokien alorrean aipatzekoa da, orobat, EGOrekin egindako hitzarmenaren bidez **balio berriak aurrera ateratzeko programa**, diru-laguntzak emateko programa batekin eta Bakarlarrien Laborategia garatuz.

EOSek musika zabaltzeko egiten duen lana ez da hezkuntzaren alorrera mugatzen; Orkestra **hedabideetan agertzeko lana** ere egiten da. Euskadi Irratian hamabostean behin emanaldi bat eskainiz eta helburu soziala duten beste programa batzuekin, hala nola EHATZ – Adimen Urritasuna Dutenen Aldeko Elkarteen Euskal Federazioarekiko eta Gureak-ekiko elkarlanaren bidez (2009an Aurrera saria jaso zen Gureak Sariaren lehenengo edizioan).

Eta, azkenik, zabalkundearen alor honetan, ahalegin handi bat egin da **teknologia berriek** eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko. Horretarako ekimenen artean aipatzekoak dira:

- Web orri berri bat abian jartzea Orkestra honen ekimen guztiekin eta beste berrikuntza batzuekin: kontzertuak entzuteko aukera (8.200 sarrera zenbatu dira dagoeneko), jolas didaktikoak, eta profilen araberako banaketa.
- Osetunes gunea, eskuko telefonoentzako Orkestraren melodien 5.000 tonu-deskargatik gora izan dituen.
- Web orritik Orkestraren kontzertuak *streaming* gisa entzuteko aukera.

2.3. Grabaketak

Testuingurua. Ondarea sortuz

EOSen helburuetako bat euskal musika-ondarea ezagutaraztea da, eta helburu horretarako ezinbestekoak dira grabaketak, ondare errepikagarri hori handitzeko eta orkestraren jarduerari proiektzioa emateko.

Diskogintzako industriaren krisi-egoera ezaguturik, industria hori orain arte ikusi den bezala behintzat, musika ondarea kalitate onez kontserbatzekoa eta zabaltzekoa da EOSen jarduera-ildo honen zentzua.

Programak. Diskogintza eta ikus-entzunezko jarduera

EOSek grabaketari dagokionez orain arte egin duen jarduera **ikus-entzunezko hedabideetan egindako grabaketen bitartez** –Euskadi Irratian egindako abonuko Programak, ETBrako eta TeleDonostirako Kontzertuak– eta **diskoak grabatuz** gauzatu da; azkeneko bi urte hauetan sei disko izan dira:

- Euskal Musikagileak bilduma: 12. alea. Beltran Pagola (1878-1950). Gipuzkoar musikagile horri eskainitako monografiko bat. Disketxea: Claves Records. 2009.
- Euskal Musikagileak bilduma: 13. alea. Valentin Zubiaurre (1837-1914). Bizkaitar musikagile horri eskainitako monografiko bat. Disketxea: Claves Records. 2010.
- Illarramendi: 3. Sinfonia. Disketxea: Nuba Records/Karonte. 2010.
- «El mal ajeno», Fernando Velázquezekin musikarekin: Euskadiko Orkestrak grabatu duen lehenengo hots-banda. Disketxea: Quartet Records. 2010.
- Ekitaldi sinfonikoa. Disketxea: Classic Worl sound. 2009.
- Ramon Lazkano. Kairos Music Production. 2009.



3. Etorkizuneko erronkak

Datozen urteotan EOSen Plan estrategikoak 2012ra arte iraungo duela aurreikusita dagoen garapen-prozesu bat burutu behar du. Hauxe da Orkestra herrialde honetako kulturazko erreferentzia gisa finkatzeko kalitatearen eta bikaintasunaren printzipioetan oinarriturik EOS bere zabalkunde- eta hezkuntza-eginkizunetan aurrera eramango duten proiektu berriak bultzatzeko aukeratu den jarduera-arloa.

Helburu horretarako berebiziko papera jokatu beharko dute teknologia berriek. Gertatzen diren aldaketa bizkorretara egokitzeko arintasuna eta aldaketa horiek eskaintzen dituzten aukerak aprobeztatzen jakitea amaierarik ez duten erronkak dira. Alderdi honetatik, aipatzekoak dira abian jartzera doazen bi ekimen:

- Orkestra sare sozialetan –Facebook, Twitter, Youtube eta Flickr– egotea.
- *Euskor* Aldizkaria, ia 8.000 harpidedun dituen, formatu elektronikora aldatzea.

Hezkuntzari aitortzen zaion garrantzi berezia programa berriak finkatuz eta musika sinfonikoa era guztietako entzuleengana hurbilduko duten proiektu bereziekin osatu behar da.⁸

Eta, azkenik, etorkizunerako erronka da orobat EOSek euskal kulturaren eta musikaren enbaxadore izateko duen eginkizuna are gehiago indartzea, horretarako musika sinfonikoaren jardueraren kalitate-irudi on bat eskainiz,⁹ dela kontratatutako orkestraren formula erabiliz dela beste talde sinfoniko batzuekin truke-hitzarmenak sinatuz, urte bakoitzeko aurrekontuen mugen barruan betiere.

⁸ Helburu honetarako, 2011n Sinfokids zabalkundeko eta hezkuntzazko ikus-entzunezko proiektua abiarazi da EOSen eta EITBren arteko elkarlanean.

⁹ 2011n dagoeneko hasi da indartzen kanpora begirako jarduera hau, Extremadurara, Akitaniara eta Alemaniara egin diren irteerekin.